

Ordiziako Udala

2018IOSB0013

Ordizian, **2018ko azaroaren 29an** UDALBATZARRAK **Ohiko bilkura** egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Joseba Aranburu Ganzarain	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M. Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Euskal Sozialistak-Socialistas vascos

IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTU-HARTZAILEA:


Mikel Zubizarreta Elicegui jn.

BESTE BERTARATZE ETA IRTEERAK

AZTERTUTAKO GAIK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIK:

- 1.- 2018ko urriaren 10ean ohiko deialdian egindako osoko bilkuraren aktaren zirriborroa onartzea.
- 2.- 2018ko azaroaren 12an aparteko deialdian egindako osoko bilkuraren aktaren zirriborroa onartzea.
- 3.- Irailari eta urriari dagozkion alkatetza dekretuen berri ematea.
- 4.- Kontu-hartzaileak egindako ingeraren berri ematea, uztaileko eta azaroko kontratazioei dagozkiena.
- 5.- Zuberoa kaleko esleipenari buruz azaroaren 12ko osoko bilkuran hartu zen akordioari buruz Kontu-hartzaileak egindako txostenaren berri ematea.
- 6.-Kontu-hartzailearen 10/2018 ingeraren berri ematea, 2018rako %2,75eko soldata igoeraren onarpenari buruzkoa.
- 7.- 1123/2018 zenbakidun dekretuaren berri ematea, 32-GARBIGUNE HIEren 32.1 Exekuzio Unitatearen ituntze-hitzarmenaren onepenari dagokiona.
- 8.- Presoen urruntze politika salatuz SARE Elkartek aurkeztutako eta Ordiziako EH-Bilduk eta Ordizia Orainek onetsitako mozioa.
- 9.- “ENIRIO-ARALARko inguruak motordun ibilgailuentzat egokitzeko” proiektuaren exekuziorako errespetua eskatuz ENBA sindikatuak aurkeztutako eta EAJ/PNVk onetsitako mozioa.
- 10.-Euskararen 2018ko Nazioarteko Egunari buruzko Adierazpen instituzionala.
- 11.-Emakumeekiko indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunari buruzko Adierazpen Instituzionala.



Ordiziako Udala

2018IOSB0013

- 12.- Gizarte larrialdiak artatzeko udalaren harrera-etxebizitzak arautzeko Araudia hasierako izaeraz onartzea.
- 13.- Euskararen Erabilera Plan Estrategiko berria onartzeko konpromisoa.
- 14.- San Jose Egoitza Erakunde Autonomoak egindako etxebizitzaren erabilerearen lagapena onartzea.
- 15.- Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko lankidetzarako Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren arteko hitzarmen markoa onartzea.
- 16.- 2018ko garapen proiektuei diru-laguntzak.
- 17.- "15-TXINDOKI" HIEren 15.6. EURI dagokion Arau subsidiarioen aldaketa hasierako izaeraz onartzea.
- 18.-Kreditu aldaketaren espedientea onartzea. Kreditu transferentzia mota 2018KALD000009 ZKIA.
- 19.- Kreditu aldaketaren espedientea, kreditu gaikuntza mota KALD 000010-00.
- 20.- Aparkaldi mugatuko eremuak arautzen dituen udal ordenantza aldatzea.
- 21.- Urdaneta kaleko 4-6 zenbakietako GOI-ETXEko lursailaren lagapena onartzea

PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:

GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:

- .-Euskaraldia
- .-Koadernatutako aurrekontuen eskaera
- .-Zaharren egoitzako langileen greba-gertakariari buruzko informazioa
- .-Zuberoa kaleko bide azpiko garajeak.


GORABEHERAK

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:00 etan

AMAIERA: 21,00etan





Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2018ko urriaren 10eko ohiko Osoko Batzarrako akta onartzea.

Proposamena

2018ko urriaren 10eko ohiko Osoko Batzarrako akta onartzea

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Ezenarro jaunak adierazi du “galdera eta eskaeren” puntuan, Oianguren baserriaren puntuan aktan jasotzen denaz gain, balioa duten gauzak kendu egin beharko liratekeela ere esan zuen, gerta litezkeen lapurretak saihesteko, eta beharrezko neurriak hartzen ez baziren, erantzukizuna neurri hauek hartu ez dituenarenak izango zirela.

Alkate jaunak adierazi du berak erantzun ziola esanez dagoeneko horretarako neurriak hartu zirela.

Akta zuzendu da.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (EAJ 4, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Hortaz, Lehendakari jaunak akta aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

2.- 2018ko azaroaren 12an aparteko deialdian egindako osoko bilkuraren aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena

2018ko azaroaren 12an aparteko deialdian egindako osoko bilkuraren aktaren zirriborroa onartzea.


Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Ezenarro jaunak adierazi du euskarazko aktaren 2. orrialdean, Lukusaingo garajeen puntuan, eta puntuaren presazko izaeraren justifikazioan, berak esan zuela ez zituztela egindako garajeen tasazioak ikusi ezta garajeak ikusi ere, oraindik giltzik ez zeukatelako.

Esan du berak azaldu zuela bere taldea garajeak esleitzeko proposamenaren alde zegoela, baina onartzeko baldintza zen garajearen mantenu-egoerari buruzko alde aurreko txosten tekniko bat egitea eta udalaren espazio beharrei buruzko beste txosten bat egitea, behar horiek betetzeko garaje batzuk erresebatzeko.

Akta zuzendu da.



Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ 5,Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Hortaz, Lehendakari jaunak akta aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

3.- Iraila eta urriari gagozkion alkatetza dekretuen berri ematea

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- Kontu-hartzaileak egindako ingeraren berri ematea, uztailleko eta azaroko kontratazioei dagozkiena.


Ordizian 2018ko urriaren 27an.

KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (11/2018):

AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileari,honako kontratu hauek epez kanpo daudela jakinarazi diote idazkaritza sailetik:

Enpresaren Izena	Kontratuaren xedea	Kontratua	Bukaera data	Prorrogak	Kontratuaren prezioa	2017an Gastatua
Gesmupal	Diru.bilketa exekutiboa	2003/11/03	2007/11/03	---	Aldakorra	48.557,78
Juan M. Garmendia Amundarain	Kultur etxearen atezaina	1986/04/15	Mugagabe	Urteko luzapena	2016ko zenbatekoa: 2.948,84+ BEZ hilabetero	43.560,24
Landarri S.L.	Hilerriaren zerbitzua	2005/03/10	10 urte 2015/03/01	Luzapen dekretua esleipen berri bat arte. Bukaera data Bukaera data 2016/03/12	Gehienezko kopurua 18.000 euro + BEZ	34.901,11
Eulen Sociosanitarios	Etkez-etxeko laguntzaren zerbitzua	2010/12/24	Gehienez 5 urte 2015/12/24	Urteroko prorroga kontratu berria egin arte.	Tarifen arabera.	110.015,03



Lorratz Elkartea. Arantxa Zabaleta Imaz	Arrisku egoeran dauden gazte eta adintxikiko gizarte-hezkuntza zerbitzu publikoa.	2012/04/27	Gehienez 4 urte. 2016/04/27	Urteroko prorroga kontratu berria egin arte.	Kontratuaren prezioa: 60.000 euro BEZ barne 2016ko prezioa: 65.529 euro BEZ barneo	76.450,50
Erro Koop. Elkartea. Leire Andia	D'Elikatuz zentroaren kudeaketa	2012/07/24	Gehienez 4 urte 2016/04/27		Kontratuaren prezioa: 90.000 euros BEZ barne.	103.993,41
INDOK	Munigex-en kudeaketa	Kontraturik gabe.	Urterokoa		2016ko prezioa: 12.196,80 euro BEZ barne	13.053,11
LAIA S.COOP.	Agenda 21	2013/04/01	01/04/2015	Kontraturik gabe.	Kontratuaren prezioa: 17.061 euro BEZ barne	20.757,46
Ainara Ormaetxea Harto	Inmigratio zerbitzua	2016/01/01			21.773,95 euro BEZ barne	25.993,39

a) Aplikagarria zaizkion arauak:**a.1) 9/2017 Kontratu Publikoen Legea, azaroaren 8koa.**

“29. artikulua. Kontratuen iraupen-epea eta kontratuen exekuzioa.”

1. **Sektore publikoko kontratuen iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldian-aldian prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai, kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.**

Bigarren xedapen gehigarria. Tokierakundeetarako kontratazio-arau bereziak.


1. **Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.**

“35. artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia:

1. *Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuek aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:*

l) Hala egokituz gero, prezioa zein aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.

a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.



“67. artikulua. Legezkotasunaren kontrola.”

1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezkotasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeek eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretiazkoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.**

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoak erabilpenerako amankomunatuak erantsiko zaie.

“70. artikulua. Ingerak.”

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientearen **funtsezko beharkizun** edo izapidetza alde batetara utzi direnean.

4.- Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazibeharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.


Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testuategina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testuategina:

“213. artikulua. Barneko kontrola.”

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzailetza Nagusiarik, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio



ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketan aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzaitzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

Hile honetan irregulartasun egoeran dauden kontratuen ondorengo fakturak iritsi dira:


ERREPARO FAKTURAK		URRIA
HORNITZAILEA	FAKTURA ZENBAKIA	ZENBATEKOA
J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN	2018/10	3.701,25
LORRATZ ELKARTEA	330	5460,75
LAIA, S.COOP.	18/42	1492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	011U/18	7640,25
AINARA ORMAETXEA HARTO	93	1.814,49
GESMUNPAL, S.A.	2018/342	1.246,15
GESMUNPAL, S.A.	2018/09	165,05
EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3563548	8.044,30
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	64	286,48
LANDARRI, S.L.U.	1800582	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800583	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800600	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800601	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800603	125,01
	TOTAL	31.260,04

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira.

b) Zerrendatutako kontratuen fakturen ordainketen izapidetza etengo da, Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

Ordiziako Kontu-hartzailea.- Miguel Zubizarreta Elicegui



2018/1146. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

- Kontu-hartzaileak 2018ko urriaren 27an egindako 11/2018 txostena, indarrean ez dauden kontratuei dagokien zenbait fakturei ingera adierazten diena.
- Zerrendan dauden fakturak, epea amaitu ostean indarrean ez dauden eta luzapen epea ere agortuta duten zerbitzu-kontratuei dagozkie.
- Gaur egun dagoen lan-pilaketak kontratazioan egunean egotea eragozten du: Araudi berrien ugaritzeak, administrazio elektronikoaren ezarpenak gardentasun irizpideen baitan administrazioak betebeharrak jakin batzuk izateak espediente guztiak zorrotasun handiagoarekin bideratzera eta beste erakunde eta administrazio batzuei gai askoren inguruko informazioa helaraztera garamatza.
- Hala eta guztiz ere zehaztutako kontratuak eguneratzen eta arautzen ahalegintzen ari gara eta lehenbailehen eguneratu ahal izateko dagozkien teknikariekin pleguak prestatzeko eta plangintza egiteko bilerak egiten ari gara.
- Plangintza hori emaitzak ematen hasi da.
- Hala ere eta kontuan izanda zerbitzuak ematen ari direla horietako asko beharrezkoak edo ezinbestekoak direlako zerbitzuen gastua ordaintzea egokitzen da.


Horregatik guztiagatik:

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

* Jarraian zehazten diren fakturak ordaintzeko agindua ematea eta gobernu taldeak kontratuak eguneratzeko konpromisoa hartzea eta lan hau lehenestea.

* Dekretu hau doakionari jakinaraztea.

ERREPAROA: FAKTURAK		URRIA
HORNITZAILEA Proveedor	FAKTURA ZKIA Nº Factura	ZENBATEKOA Importe
J.M. GARMENDIA AMUNDARAIN	2018/10	3.701,25
LORRATZ ELKARTEA .	330	5.460,75
LAIA, S.COOP.	18/42	1.492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	011U/18	7.640,25
AINARA ORMAETXEA HARTO	93	1.814,49
GESMUNPAL, S.A.	2018/342	1.246,15
GESMUNPAL, S.A.	2018/09	165,05
EULEN SERV. SOCIO SAN.,S.A.	3563548	8.044,30
ORDIZIA GARBIKETAK, S.L.	64	286,48
LANDARRI, S.L.U.	1800582	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800583	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800600	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800601	320,87



Ordiziako Udala

2018IOSB0013

LANDARRI, S.L.U.	1800603	125,01
	GUZTIRA	31.260,04

* Dekretu hau doakionari jakinaraztea. * *Notifíquese el presente Decreto al interesado.*

ALKATEAK / EL ALCALDE,

Ordizian 2018ko azaroaren 22an.

KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (12/2018):


AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileari, honako kontratu hauek epez kanpo daudela jakinarazi diote idazkaritza sailetik:

Enpresaren izena	Kontratuaren xedea	Kontratua	Bukaera data	Prorrogak	Kontratuaren prezioa	2017an Gastatua
Gesmunpal	Diru.bilketa exekutiboa	2003/11/03	2007/11/03	---	Aldakorra	48.557,78
Juan M. Garmendia Amundarain	Kultur etxearen atezaina	1986/04/15	Mugagabe	Urteko luzapena	2016ko zenbatekoa: 2.948,84+ BEZ hilabetero	43.560,24
Landarri S.L.	Hilerriaren zerbitzua	2005/03/10	10 urte 2015/03/01	Luzapen dekretua esleipen berri bat arte. Bukaera data Bukaera data 2016/03/12	Gehienezko kopurua 18.000 euro + BEZ	34.901,11
Eulen Sociosanitarios	Etxez-etxeko laguntzaren zerbitzua	2010/12/24	Gehienez 5 urte 2015/12/24	Urteroko prorroga kontratu berria egin arte.	Tarifen arabera.	110.015,03
Lorraz Elkartea. Arantxa Zabaleta Imaz	Arrisku egoeran dauden gazte eta adintxikiko gizarte-hezkuntza zerbitzu publikoa.	2012/04/27	Gehienez 4 urte. 2016/04/27	Urteroko prorroga kontratu berria egin arte.	Kontratuaren prezioa: 60.000 euro BEZ barne 2016ko prezioa: 65.529 euro BEZ barne	76.450,50
Erro Koop. Elkartea. Leire Andia	D´Elikatuz zentroaren kudeaketa	2012/07/24	Gehienez 4 urte 2016/04/27		Kontratuaren prezioa: 90.000 euros BEZ barne.	103.993,41
INDOK	Munigex-en kudeaketa	Kontraturik gabe.	Urterokoa		2016ko prezioa: 12.196,80 euro BEZ barne	13.053,11
LAIA S.COOP.	Agenda 21	2013/04/01	01/04/2015	Kontraturik gabe.	Kontratuaren prezioa: 17.061 euro BEZ barne	20.757,46
Ainara Ormaetxea Harto	Inmigratio zerbitzua	2016/01/01			21.773,95 euro BEZ barne	25.993,39

a) Aplikagarria zaizkion arauak:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAA4H78M>



a.1) 9/2017 Kontratu Publikoen Legea, azaroaren 8koa.

“29. artikulua. Kontratuen iraupen-epea eta kontratuen exekuzioa.”

2. **Sektore publikoko kontratuen iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoak izango den, eta aldian-aldian prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai, kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.**

Bigarren xedapen gehigarria. Tokierakundeetarako kontratazio-arau bereziak.

1. **Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.**

“35. artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia:

1. *Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuak aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:*

l) Hala egokituz gero, prezioa zein aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.

a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

“ 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola.”


1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebehar ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebehar ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretiazkoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.**

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoan erabilpenerako amankomunatu erantsiko zaie.



“70. artikulua. Ingerak.”

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientearen **funtsezko beharkizun** edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazibeharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testuategina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testuategina:

“213. artikulua. Barneko kontrola.”

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzailetza Nagusiari, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”

1. Kontu-hartzaileetako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzuniko die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.


Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organoko eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitu duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzaileetako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

Hile honetan irregulartasun egoeran dauden kontratuen ondorengo fakturak iritsi dira:



ERREPARO FAKTURAK		AZAROA
HORNITZAILEA	FAKTURA	ZENBATEKOA
J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN	2018/11	3.701,25
LAIA, S.COOP.	18/51	1492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	012U/18	7640,25
AINARA ORMAETXEA HARTO	94	1.814,49
GESMUNPAL, S.A.	2018/365	3.922,71
GESMUNPAL, S.A.	2018/10	685,75
EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3573071	9.756,24
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	71	286,48
LANDARRI, S.L.U.	1800643	80,08
LANDARRI, S.L.U.	1800644	80,08
LANDARRI, S.L.U.	1800707	962,60
	GUZTIZKOA	30.422,76

ONDORIOAK:

- a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira.
- b) Zerrendatutako kontratuen fakturen ordainketen izapidetza etengo da, Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

Ordiziako Kontu-hartzailea.- Miguel Zubizarreta Elicegui


2018/1148. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

- Kontu-hartzaileak 2018ko azaroaren 22an egindako 12/2018 txostena, indarrean ez dauden kontratuei dagokien zenbait fakturei ingera adierazten diena.
- Zerrendan dauden fakturak, epea amaitu ostean indarrean ez dauden eta luzapen epea ere agortuta duten zerbitzu-kontratuei dagozkie.
- Gaur egun dagoen lan-pilaketak kontratazioan egunean egotea eragozten du: Araudi berrien ugaritzeak, administrazio elektronikoaren ezarpenak gardentasun irizpideen baitan administrazioak betebeharrak jakin batzuk izateak espediente guztiak zorrotasun handiagoarekin bideratzera eta beste erakunde eta administrazio batzuei gai askoren inguruko informazioa helaraztera garamatza.
- Hala eta guztiz ere zehaztutako kontratuak eguneratzen eta arautzen ahalegintzen ari gara eta lehenbailehen eguneratu ahal izateko dagozkien teknikariekin pleguak prestatzeko eta plangintza egiteko bilerak egiten ari gara.
- Plangintza hori emaitzak ematen hasi da.
- Hala ere eta kontuan izanda zerbitzuak ematen ari direla horietako asko beharrezkoak edo ezinbestekoak direlako zerbitzuen gastua ordaintzea egokitzen da.

Horregatik guztiagatik:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAA4H78M>



HONAKO HAU ERABAKI DUT:

* Jarraian zehazten diren fakturak ordaintzeko agindua ematea eta gobernu taldeak kontratuak eguneratzeko konpromisoa hartzea eta lan hau lehenestea.

* Dekretu hau doakionari jakinaraztea.

ERREPARAOA: FAKTURAK		AZAROA
HORNITZAILEA Proveedor	FAKTURA ZKIA Nº Factura	ZENBATEKOA Importe
J.M. GARMENDIA AMUNDARAIN	2018/11	3.701,25
LAIA, S.COOP.	18/51	1.492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	012U/18	7.640,25
AINARA ORMAETXEA Harto	94	1.814,49
GESMUNPAL, S.A.	2018/365	3.922,71
GESMUNPAL, S.A.	2018/10	685,75
EULEN SERV. SOCIOSAN.,S.A.	3573071	9.756,24
ORDIZIA GARBIKETAK, S.L.	71	286,48
LANDARRI, S.L.U.	1800643	80,08
LANDARRI, S.L.U.	1800644	80,08
LANDARRI, S.L.U.	1800707	962,60
	GUZTIRA	30.422,76

* Dekretu hau doakionari jakinaraztea. * *Notifíquese el presente Decreto al interesado.*
ALKATEAK / EL ALCALDE,

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:


Alkate jaunak azaldu du Kontu-hartzailearen lehenengo ingera konparatzen badugu oraingo osoko bilkurako txostenarekin, kontratu irregularrei dagokienean, erregularizatu beharreko kontratuetatik hiru laurden dagoeneko erregularizatu dela eta erregularizatu beharreko 1.300.000 €tik, hau da, beste laurdena, dagoeneko bideratua dagoela.

Atzo bertan etxez etxeko laguntza zerbitzurako lizitazio iragarkia argitaratu zen kontratatzailearen profilean.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



5.- Zuberoka kaleko esleipenari buruz azaroaren 12ko osoko bilkuran hartu zen akordioari buruz kontu-hartzaileak egindako txostenaren berri ematea

1.AURREKARIAK

Ordiziako Udaleko Aurrekontu Orokorra 2018rako 2018ko maiatzaren 31n onartu zen hasierako izaeraz eta behin betiko onartu eta argitaratu zen 2018ko abuztuaren 8an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Aurrekontu orekatua aurkeztu zen, diru-sarrera guztiekin gastu guztiak finantzatzen baitziren.

Udalaren diru-sarreraren partidetan honako hauek azaltzen ziren:

2 612.03.000.00.0000 2018 ONDARE SALMENTA ETXEBIZITZA ETA GARAJEAK 200.000€
Partida hau osatzeko proposamen bat eraman zen, alegia, 16 garaje plazaren salmentari zegokiona, 13.222 euroan= 211.552 euro.

b) 2018ko azaroaren 12an egindako aparteko osoko bilkuran honako puntu hau aztertu zen:

1.-ZUBEROA KALEKO BIDEAREN AZPIAN DAUDEN 32 APARKALEKUREN ESLEIPENERAKO BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN AGIRIAREN ONARPENA. Lehenengo fasean 32 garajetik 16 esleitu nahi dira eta Udalak berak dituen beharrak aztertu garaje batzuk eskura izan ahal izateko.

Proposamen hau atzera bota zuten, bozketa honako hau izanda:

Aldeko botoak: 6 (EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE) 1)
Kontrako botoak: 7 (Ordiziako EH-BILDU 5, O.ORAIN 2)
Abstentzioa: 0

2. APLIKAGARRIA DEN ARAUDIA

2.a) 21/2003 FORU ARAUAK, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, honako hau dio:

- **Hitzaurrea:**“sarrerak aurreikusitako gastuei aurre egiteko nahikoak izan behar dira”.
- **“5. artikulua. Aurrekontu abiaburuak**
5.1.- Finantzen oreka: aurrekontu bakoitzari dagokionez, sarreraren zenbatekoa gastuen zenbatekoa estaltzeko beste izan behar da”

- **6. artikulua. Edukia**


6.1. Toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen aurrekontu bakoitzak atal hauek eduki behar ditu:

a) Ekitaldian zehar likidatu beharreko eskubide ekonomikoak zenbatesten dituen sarreraren orria.

“7. artikulua. Sarreraren orriak:

7.1.- Aurrekontuko sarreraren orrietan erakundeak kontzeptu guztien zioz aurrekontu ekitaldian likidatuko dituen finantza baliabideen zenbatekoa agertu behar da”

2.b) Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko erregelak 2018rako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko onartzen dituen jarraibidea.



1. Erregela. Aurrekontu egonkortasunaren helburua.

1. Aurrekontuen egonkortasunari dagokionez, 2018ko ekitaldian, 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitate guztiek bete beharreko helburua izango da defizita zero izatea, finan tza keta ahalmena edota premiaren bitartez neurtuta, Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarrean jasotako definizioari jarraituz.

Magnitude hori zehazteko, honakoa hartuko da kontuan:

- Entitatea aurrekontu eta kontabilitate publikoa eramatera behartuta badago, finantzaketa ahalmena edota premia honakoen arteko diferentziaren bitartez kalkulatu da: Aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetakotako sarreraren eta aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetakotako gastuen artekoa. Horrez gain, kalkulatu nahi den magnitudean eragin adierazgarriarik duen bestelako eragiketarik egongo balitz, dagokion doiketa egingo da.
- Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finan tza rioa egin beharko dute, gutxienez 2019-2021 epealdia aurreikusiko duena, eta jarduneko urtean edota hurrengoan egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

ONDORIOA:

1) Aurrekontuan azaltzen den “2 612.03.000.00.0000 2018 Ondare salmenta etxebizitza eta garajeak 200.000” diru-sarreraren partida, estimazioz egindako partida bat da, 2018 urteko ekitaldian zehar likidatzea aurreikusten dena eta 2018rako aurreikusten diren kapital gastuak finantzatzeko erabiltzen dena. Hau da, pleguak ez onartzea erabakitzen bada, eta ez badira beste plegu alternatibo batzuk aurkezten, garajeak saltzeko beharrezkoak izanik pleguak, 2018ko inbertsioen finantziazioa bertan behera geratzen da, eta beraz, kapital gastu guztiak exekutatu balira aurrekontuan defizita izango genuke. Hori dela eta, erabaki behar lirateke ekitaldi honetan zehar exekutatu ez diren kapital gastuak, 200.000 eurokoak, ekitaldia ixtean defizit hori ez izateko.

2) Aurrekontu egonkortasuna 1etik 7ra bitarteko kapituluaren diru-sarreraren ken eta 1etik 7ra bitarteko gastuen arteko diferentzia gisa neurtzen da, eta zero edo positiboa izan behar da emaitza. Gure kasuan kapitalaren diru-sarrerak (diru-sarreraren 6.kapitulua) gutxitzen ditugu 200.000 euroan 1etik 7rako gastuak gutxitu gabe, eta beraz, gastu guztiak (1etik 7ra) aurrekontuan azaltzen diren moduan exekutatzen badira, ez litzateke defizit publikoko helburua beteko eta plan ekonomiko eta finantzazko bat egin beharko litzateke, gutxienez 2019-2021 epealdirako.

Ordizian 2018ko azaroaren 19an


Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontu-hartzaile jaunak txostenaren xedea zein den azaldu du. Esan du txostenaren xedea dela gogoraraztea zenbatekoa sarrera gisa dagoela jasota aurrekontuan, eta aurrekontu-oreka lortzeko, lizitazio-akordioa gauzatu behar dela.

Ezenarro jaunak esan du ez duela oso ondo ulertzen zertara datorren txosten hori; izan ere, pasa den asteko osoko bilkurarako gaien batzordean aipatu zen garajeen esleipena alkatetzaren dekretu bitartez onartuko zela.

Aipatu du, halaber, azken osoko bilkuran esana zuela bere taldea ados zegoela garajeak lizitatearekin, betiere espedientearen garaje horien egoerari eta udalarentzat berarentzat plaza batzuk gordetzeari buruzko txostenak jasotzen baziren.



Kontu-hartzaile jaunak esan du txostena egin duela 2018ko aurrekontuan esleipenari dagokion partida sarrera bezala ageri dela argitzeko, gehiago argitu badaiteke.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- Kontu-hartzailearen 10/2018 ingeraren berri ematea, 2018rako %2,75eko soldata igoeraren onarpenari buruzkoa.

**ERREPARO ORRIA 10/2018
2018AN SOLDATEN IGOERA GUZTIRA %2,75 ONARTZEARI**

AURREKARIAK

a) 2018ko uztailearen 3an 6/2018 legean, "Estatuko Aurrekontu Orokorrena" 18. artikuluko 2. atalean, langile publikoen eta sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen soldataren igoera arautzen da.

Hortaz, 2018rako eta ekainaren 1eko eraginarekin, % 1,5eko gehieneko igoera aurreikusten da 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, homogeneotasunaren arabera konparazioaren bi epeetarako.

Aurrekoaz gain, % 25 gehituko da, 2018ko uztailaren 1eko eraginarekin BPGa % 3,1era heltzen bada edo gainditzen badu, lortu den balioa.

Azkenik, % 0,2ko igoera osagarri bat baimendu daiteke, soldata-masaren % 0,3 (Ordiziaren kasuan, 2017an aurrekontu-superabita edukitzeagatik), beste neurri batzuen artean, produktibitatea edo efikazia hobetzeko planak ezartzeko edo parekatu daitezkeen funtzioak dituzten lanpostuen artean berariazko osagarriak berrikusteko, lanpostu-mailako osagarriak homologatzeko edo pentsio-planei ekarpenak egiteko.

b) 2018ko urriaren 10ean Osoko Bilkurak honako proposamena aurkeztu da:

" Ordiziako Udalaren Langile Batzordeak langile publikoaren 2018ko soldata igoera dela eta aurkeztu dugun proposamena.

2018ko Urriaren 10ean Udal batza plenoan proposatzen den soldataren igoera dela eta. Zera adierazi nahi dugu.

Ez dagoela Alderdi politikoek eta langile batzordeak adostu zutenarekin bat egiten, hau da 2016,17,18, eta 2019rako soldata igoera IKP+1,15, beraz eskatzen duguna zera da hartutako akordioa errespetatzea eta soldataren igoera % 2,75ekoa izatea"

c) Kontu-hartzaileak mikrofonoa hartu duelarik Osoko Bilkurari azaldu dio, hartu nahi den erabakia, erabat deuseza dela.


d) Osoko Bilkurak, Kontu-hartzaileak esandakoa entzunda eta gero, aurrera egitea erabaki du, eta soldaten igoera, %2,75koa izatea onartu du honako botoekin:

Aldeko bozkek: 7 (5 Ordiziako EH-Bildu+ 2 Ordizia Orain)

Kontrako bozkek: 4 (EAJ/PNV)

Abstentzioa: 1 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

ANALISI JURIDIKOA



2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorraren 6/2018 legeak, aurrekarietan aipatutako igoerak baimentzen ditu, baina ez Osoko Bilkurak 2018ko urriaren 10ean hartu duen erabakia, hau da, %2,75 igoera.

ONDORIOA

a) 2018an igoera guztira %2,75 izatea, indarrean dauden ondorengo arauaren kontra doa:

6/2018 Legea 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorra arautzen duena.

b) Bestalde, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena honako hau dio:

“47. artikulua. Erabateko deuseztasuna”:

*47.2. Erabat deusezak izango dira orobat honako administrazio-xedapen hauek: **Konstituzioa, legeak edo administrazioaren goragoko mailako xedapenak urratzen dituztenak**; legez arautu beharreko gaiak arautzen dituztenak; eta aldekoak ez diren edo eskubide indibidualak murrizten dituzten xedapen zehatzzaileen atzera eragina ezartzen dutenak.*

Ondorioz, nire ustez erabateko deuseza da hartu den soldataren %2,75ko igoeraren erabakia.

Ordizian, 2018ko urriaren 10ean.

Mikel Zubizarreta Elicegui.- Ordiziako Kontu-hartzailea

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontu-hartzaile jaunak aipatu du akats materialen bat egon dela datetan eta zuzenduko direla.

Txostenaren xedeari dagokionez esan du idatzirik utzi nahi izan dela osoko bilkurak onartutako igoera legez kontrakoa dela, 2018rako Estatuko aurrekontu orokorren kontrakoa.


Eguren jaunak gobernu-taldeari galdetu dio zer egingo duen osoko bilkurak hartutako erabakiarekin.

Alkate jaunak erantzun dio bere jarrera eta gobernu-taldearena argi geratu zela osoko bilkuran: egin daitekeen soldata igoerarik handiena egitea, eta langileen batzordeak proposatzen duen igoerarekiko (% 2,75) kopuru baliokide bat lortzea funts batean, legeak ahalbidetzen duenean egin beharreko igoerak egiteko.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



7.- 1123/2018 zenbakidun dedretuaren berri ematea, 32 GARBIGUNE HIEren 32.1 Exekuzio Unitatearen ituntze-hitzarmenaren onespenerari dagokiona.

2018/1123. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

2018ko urriaren 24an Sasieta Mankomunitateak egindako Ituntze Hitzarmenaren proposamena, Ordiziako "32-Garbigune" Hirigintza Interbentzio Eremuko 32.1 Exekuzio Unitatearen Ituntze Sistema bidezko garapen eta kudeaketarako.

- Lurzoru eta Hirigintzako ekainaren 30eko 2/2006 Legeak jasotzen du Udalari dagokiola hirigintza hitzarmenaren onarpena, Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarrian ezarritako prozeduraren arabera.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 j) artikulua arabera, Alkateari dagokio hirigintza kudeaketarako bitartekoak onartzea.

TENGO A BIEN:

- 1.- 32-GARBIGUNE Hirigintza Interbentzio Eremuaren 32.1 Exekuzio Unitatearen Ituntze Hitzarmena onartzea aipatutako Eremuaren hirigintza garapenerako.
- 2.- Aipatutako hitzarmena jendaurrean erakustea 20 eguneko epean, Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarrian oinarrituta.
- 3.- Hasierako izaeraz onartutako akordioa behin betikotzat hartzea ez bada iradokizun edo erreklamaziorik aurkezten.
- 4.- Hurrengo osoko bilkuran dekretu honen berri ematea.
- 5.- Dekretu hau doakionari jakinaraztea.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak adierazi du Eremuaren ituntze hitzarmena onartzeko Alkatetza Dekretuaren berri ematen dela, eta horrek, 2012an zabaldu zen instalazioaren, hau da, 32 GARBIGUNE HIEren Arau Subsidiarioen aldaketako espedientea legezatzeko prozedura aurrera doala esan nahi duela.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.




Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

8.- Presoen urruntze politika salatuz SARE Elkarateak aurkeztutako eta Ordiziako EH-Bilduk eta Ordizia Orainek onetsitako mozioa.

Proposamena

Pasa den apirilaren 18an Arabako Batzar Nagusiak presoen urrunketa politikarekin ezadostasuna azaltzen zuen mozioa onartu zuen.

Hitzarmen honekin Euskal Autonomi Erkidegoko hiru Batzar Nagusien akordiora iristen gara, 2016ko abenduaren 14ean Gipuzkoan eta 2017ko ekainaren 7an Bizkaian onartutakoen ondoren.



Egin berean, aho batez onetsi zuten Euskal Autonomi Erkidegoko sindikatuek: ELA, LAB, CCOO, UGT, ESK. Steilas, EHNE, Hiru eta Etxalde.

Gure udalerrian, egun, preso daudenak hauek dira:

- Pako Mujika Garmendia. Zuera (Zaragoza). Ordiziatik 300 kilometrotara.
- Rufino Arriaga Arruabarrena. Sevilla II (Sevilla). Ordiziatik 910 kilometrotara.
- Idoia Mendizabal Mujika. Picassent (Valentzia). Ordiziatik 600 kilometrotara.

Ondorioz, udalbatzak honakoa onartzea dugu helburu:

Lege Orokorrean askatasuna kentzeko zigorrak betetzean deserrotzea saihesteko ezarritakoa kontuan izanik, zigor horien bergizarteratze printzipioen arabera, adierazten dute ez daudela ados urruntze espetxe-politikarekin. Alde horretatik, ETAREN indarkeriaren behin betiko etenak irekitako garai berriaren barruan, uste dute espetxe-politika berri bat behar dela, hain zuzen ere presoak zigorrak gizarte - eta familia-erroak dituen lekutik urrun betetzea saihesten duen politika bat, zeinek erraztuko baitu bere senideekin harremana izatea, bere seme-alaba adingabeen ongizatera begira eta horiek gurasoekin egoteko duten eskubidearen alde.

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labor-labor zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jaunak bilkurara etorri den SARE elkarteko kide bati eman dio hitza, eta mozioa irakurri du.

Bere eskaera udaleko osoko bilkuran aztertu eta onartzetik haratago doa.

Honekin eskatzen duena da, mozioa onartzen bada, kopia Ordiziako presoak dauden Espetxe Erakundeetara bidaltzea eta presoek beraiei ere bai, beraien udaleko osoko bilkurak onartu duen mozioaren berri izan dezaten.

Sukia andereak esan du bere taldeak guztiz bat egiten duela mozioaren edukiarekin eta presoek sakabanaketa politikaren aurka dagoela.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)
Kontrako botoak: 0
Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.




Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

9.- "ENIRIO-ARALARko inguruak motordun ibilgailuentzat egokitzeko proiektuaren exekuziorako errespetua eskatuz ENBA sindikatuak aurkeztutako eta EAJ/PNVk onetsitako mozioa.

Proposamena

AURREKARIAK

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAA4H78M>



2016ko Abenduaren 14an Gipuzkoako Batzar Nagusiek Aralarko Artzain eta Abeltzainen duintasunaren aldeko ebazpena onartu zuten. Bertan Enirio Aralarko Mankomunitateak Zuzendaritza Batzordean onartutako Inbertsio Beharren Plana babestu zuen eta Gipuzkoako Foru Aldundiari Inbertsio Beharren Plana etenik gabe gauzatu ahal izateko, beharrezkoak diren baliabide tekniko zein ekonomikoak bideratu zitzala eskatzen zitzaion.

Enirio eta Igaratza txabolen arteko bidearen egokitzapena Inbertsio Beharren Planaren zerrendan jasotako proiektu bat izanik, Enirio Aralarko Mankomunitateak sustatu eta Gipuzkoako Foru Aldundiak baimendu du.

Proiektu hau 2018ko irailean mendian gauzatzen hasi denean auzibidean jarria izan da. Horren ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldunditik baimena bideratu duten ordezkari politikoak zein Mankomunitatean aldeko bozka eman duten ordezkari politikoak auzibidean jarriak izan direla jakitera eman dute komunikabideek. Bide penaletik jo dutela eta bakoitzaren izen abizenak lau haizetara zabalduak izan dira beldurrarazte intentzio jakin batekin.

AURREZ AZALDUTAKO GUZIAGATIK, ENBA NEKAZAL SINDIKATUAK HONAKO MOZIOA AURKEZTEN DU ORDIZIAKO UDALAK, AZTERTU ETA BERE HORRETAN ONAR DEZATEN.

Udal honek errespetatu egiten du Enirio Aralar Mankomunitateak "Enirio eta Igaratza txabolen arteko bidearen egokitzapena ibilgailu motordunentzat" obra proiektua egiteko gehiengoz hartutako erabakia.

Mankomunitatean obra proiektua gauzatzearen aldeko bozka eman duten ordezkari politikoen erabakia errespetatzen du eta hauen kontrako jazarpen publikoa gaitzesten du.

Gipuzkoako Foru Aldundian obra egiteko baimena bideratu duten ordezkari politikoei eta Mankomunitatean obra proiektua gauzatzearen aldeko bozka eman duten ordezkari politikoei, epai bidean jartzearen ondorioz izaten ari diren jazarpen mediatikoaren aurrean gure babesaz azaltzen diegu.

Eztabaida

Aranburu jaunak mozioa irakurri du.

Eguren jaunak esan du bere taldeak ezin duela errespetatu Enirio-Aralar Mankomunitatean Ordiziako ordezkariak adostutako erabakiak; izan ere, mankomunitatean hartu diren zenbait erabaki Ordiziako ordezkariaren aldeko botoarekin hartu dira, nahiz eta osoko bilkura aurka azaldu. Alkateak dio posizionamendu pertsonala dela Enirio-Aralar Mankomunitateko ordezkari gisa.

Esan du, halaber, epaitegian auzi penal bat aurkeztu dela, eta mankomunitateak pista berriak irekitzea erabaki eta gauzatu duela, ezer gertatu ez balitz bezala.


Hortaz, ezin dute mozioa errespetatu, ezta onartu ere.

Alkateari eskatu dio ez izateko horren zinikoa. Bere iritziz, Eniri-Aralarren pistak egitearekin lotura duten gaiak eztabaidatu direnean zenbait pertsona eta talde barrengarri utzi dira.

Sukia andreari harrigarria iruditzen zaio, eta lotsarik ez edukitzea irizten dio osoko bilkuran halako mozio bat aurkezteari.

Eguren jaunak erabilitako arrazoi berberetatik (alegia, osoko bilkurak hartutako erabakiak ez errespetatzea), mozioaren aurka bozkatuko dute.

Esan du, halaber, akordioak hartzearen inguruan auzi-eskea aurkeztea guztion eskubidea dela.



Ordiziako Udala

2018IOSB0013

Alkate jaunak esan du Gipuzkoako Batzar Nagusietan EH-BILDUK pistak egitearen aldeko bozka eman zuela. Errespetua eskatu du hartutako erabakiekiko.

Esan du, horrekin ordezkari politikoek abeltzainen eskaerak jaso baino ez dutela egin. Gerora teknikariek proiektuak eta azterlanak idatzi dituzte espedienteak bideratzeko.

Goroskintxuko pista egikaritzeko proiektuagatik auzi-eskea aurkeztuta, bigarren pista hori egiteko hartu beharreko neurri eta prozedura-berme guztiak hartuko dira.

Bozketa

Aldeko botoak: 6 (EAJ/PNV 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 7 (Ordiziako EH-BILDU 5, Ordizia-Orain 2)

Abstentzioa: 0

Proposamena, beraz, ez da onartu

Sukia andreak alkatearen izaera demokratikoa kritikatzan duen idazkia irakurri du, eta kontratu irregularrak, soldata igoyerak eta beste hainbat kontu aipatu ditu.

LUKUSAINGo garajeen lizitazioa alkatetzaren dekretu bidez onartu da, osoko bilkurak gai horri gehiengoz ezetza eman bazion ere.

Dubreuil jaunari ere zuzendu zaio, berau gobernukidea.

Esan du alkateak, garajeen lizitazioa dela-eta, aldatu eta bere nahietara moldatzen duela kontu-hartzailearen txostena.

Gauza bera egiten du Enirio-Aralarrekin; entzungor egiten dio osoko bilkurak mankomunitatean hartu beharreko zenbait erabakiekiko erakusten duen jarrera.


Gogora ekarri du alkatea dela bere taldeak hala ahalbidetu zuelako, eta esan du bere taldearengatik balitz, aspaldi zegokeela kargutik kanpo; izan ere, aurrera atera nahi izan duten zentsura-mozioak ez du babes nahikorik lortu.

Alkateak legealdiaren hasieran emandako hitza gogorarazi du; hau da, gobernu irekia izatea.

Bere taldea, eta botoa eman zioten ordiziar guztiak, gutxiesten ari direla iritzi dio. Hori dela-eta, osoko bilkura utziko du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



10.- Euskararen 2018ko Nazioarteko Egunari buruzko Adierazpen instituzionala.

Proposamena

2018KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA

Bizi. Prest

Egunero delako euskararen aldia

Bizi. Prest.

Halaxe datorkigu euskara bere aurtengo Nazioarteko Egunean. Eta halaxe doa etorkizunerantz. Mingainetan, pantailetan, uhinetan bizi-bizi. Zernahitarako prest.

Etxean bizi-bizi, kalean bezala; bizi-bizi eskolako jolastokian, ikasgelan bezala; lantokian bizi-bizi, lagunarteko solasaldietan bezala; bizi-bizi osagilearenean, saltokian bezala; zuzeneko harremanetan bizi-bizi, birtualetan bezala; bizi-bizi kirolean, liburuetan edo zineman bezala.

Prest gaudelako gu, euskal herritar gehien-gehienok, hori horrela izan dadin. Prest gaudelako euskarari gure hitzen hegoak eskaintzeko, ahotik belarrira, bihotzetik bihotzera, burutik burura hegaldada dadin, samur bezain indartsu. Dakiguna dakigula, mintzaten ez dena baita euskara eskas bakarra.

Prest gaude, eta gogotsu, euskarak gure ahoan bizi-bizi dantza egin dezan. Gogotsu gaude, eta prest, gure belarrietan atseginez onartzeko euskararen soinua. Dakiguna dakigula, entzuten ez dena baita euskara kaskar bakarra.

Prest gaudelako, eta ezin gogotsuago, euskaraz ere gero eta gehiago bizitzeko. Ingurune guztietan. Eginkizun orotan. Natural-natural. Bizi-bizi.

Euskal hiztunok horretarako egin behar dugun urratsa ez da txikia, ez erraza. Borondate aktiboa eskatzen digu. Erosokeriari izkin egitea eskatzen digu. Sakon errotoak aldatzea eskatzen digu.

Kontzientzia ahalegin sendoa eskatzen digu. Euskaraz ere herritar izateko aukera egitea eskatzen digu.

Eta eskatzen digu, batez ere, euskaldun izatetik euskaldun bizitzera doan tarte gaitzeko jokaera aktiboa. Eta etengabea.

Euskararen erabileran egin beharreko urrats erabakigarri hau zinez da gizarte-eraldaketa zabal sakona, neurri historikoa duena, gure gizartearen bilakabidean mugarri izango dena. Eta, neurri horretako aldaketa guztien antzera, adostasuna du elikagai nagusi, prestasun eta prestutasunarekin batera.


Euskararen gizartea. Gizartearen euskara

Adostasuna eta batasuna dira, beraz, bidea, euskarak batura behar duelako, ez kenketa; biderketa behar du, ez zatiketa.

Herri aginteak, gizarteak bere dinamika propiotik sorturiko erakundeak, herritar guztiok eta gutariko bakoitza: den-denok gara, aldi berean, euskararen erabilera eraginkortasunez areagotzeak ezinbestekoa duen adostasun zibil zabalaren osagai eta eragile, aldi berean garen bezala haren onuradun eta bultzatzaile, bideratzaile eta babesle.

Baina aktibotasuna, praktiktotasuna, da adostasun horren osagarri nahitaezkoa. Aski ez delako, honezkerok, aldarrikapen hutsen linboan galtzen diren asmo arranditsuak plazaratzea. Atzean utzi behar dugulako beste inork euskararen alde egin lezakeenaren zain egotea. Lorgarria delako, erabat, euskararen erabilera hazkunde iraunkorren bidean jartzea, baldin eta herritar bakoitzak euskara ezpainetara eramateko bere erabaki pertsonala gauzatzen badu, hori eta ez besterik delako, azken finean, gizartearen helburu kolektiboa: aukera pertsonal ugariren batura.

Eta egin egingo dugu.



Ordiziako Udala

2018IOSB0013

Munduari euskaraz ere helduz, euskararentzat belarria zein gogoia prest izanez, euskara ahoz zein idatziz bizi-bizi eskainiz. Euskarak eguneroko bizitza aberastu dezan; eguneroko bizitzak euskara bete dezan.

Elkarrekin.

Elkarrenganako errespetu osoz, elkarrengandik adorea jasoz.

Elkarri euskara eskainiz.

Euskara bizi-indarrez sendoagotuz.

Bizi. Prest.

Egunero delako euskararen aldia.



Eztabaida

Iturrioz jaunak mozioa azaldu du.

Maiza andreak esan du gauza erraza dela adierazpen bat bozkatu eta sinatzea baina horrez gain euskararen alde zer egiten den galdetu du.

Gaur bertan, osoko bilkura hastean, ordenantza baten euskarazko kopia jaso du eta deialdia jaso zuenean gaztelera hutsean jaso zuen.

Itxura egiteko da soilik?

Osoko bilkuran interprete bat dago eta hala ere Alkateak interbentzio guztiak elebitan egiten ditu.

Benetan uste dugu paper batean onartu eta sinatzen duguna beteko dela?

Alkate jaunak esan du bere interbentzioak elebitan egiten dituela osoko bilkurako bideoa ordiziar guztiei zuzentzen zaielako eta horien artean badaudelako euskara ulertzen ez duten pertsonak.

Bozketa

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Proposamena aho batez onartu da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

11.- Emakumeeikiko indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunari buruzko Adierazpen Instituzionala.

Proposamena


“EMAKUMEEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA”

Biktimen erreparazioak emakumeei ahotsa ematea eskatzen du.

Azaroaren 25^a dela eta, Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Egunean, Indarkeria matxistatik libre egongo den gizartea eraikitzearekin dugun konpromisoa berretsi nahi dugu.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAA4H78M>

23



Ordiziako Udala

2018IOSB0013

Era berean, nazioarteko marko juridikoarekin bat, berriz azpimarratu behar dugu badagoela loturarik genero-arrazoiengatiko bazterkeria eta desbintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean, azken hori emakumeen arkaio indarkeria giza eskubideen urraketa bat bezala ulerturik.

Testuinguru honetan, arreta jarri nahi dugu indarkeria matxistaren biktimek duten erreparazio-eskubidean. Erreparazio horrek egiarako eskubidea Dakar; alegia, bizi izandako Indarkeriaren, salaketaren eta emakumeen hitzen errelatoa egiazki entzuna izatea. Horren guztiaren xedea da hautsitako eskubideak lehengoratzeta eta pairatutako indarkeriaren inpaktuak sozialki aitortzea. Indarkeria matxista hauek bizitzen dituzten emakumeen errelatoak zalantzan jartzen direnean, halen hitza gutxietsia izaten da, zikindua, are isilarazia. Halakoetan biktimizazio bikoitza gertatzen da: emakume biktumek jasandako minari lotsa eta erruduntasuna eransten zaio; bitartean, Justifikatu egiten dira erasotzaileak.

Tokiko Erakundeetatik gure egin behar dugu gizarte bat eraikitzean daukagun ardura social eta politikoa, gizarte horrek biktimen egiarako eskubidea bermatuko badu.

BERDINSAREatik, Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako euskal udalen saretik, indarkeria matxistaren aurrean udal erantzunaren artikulazioa lantzen ari gara, nola eta Instanbuleko Hitzarmenaren markoa egokituz eta biktimen erreparaziorako toki-praktikak garatuz.

Ezinbestekoa da ematea ahotsa emakumeei, autoritatea beraien lekukotzari eta egiazkotasuna bizi izandako indarkeriari buruz egiten duten errelatoari. Horrek esan nahi du indarkeriaz beharturiko emakumeen hitza aintzatetsi beharra dagoela, haien askatasuna berrezarri, hartara bizirik atera den pertsonatzat har daitezen eta beren komunitateetan eskubide osoko duintasun- eta herritartasun- zentzua berreskura dezaten.

Horretarako, Udalek ondokoa gauzatzeko konpromisoa hartzen dugu:

- Zerbitzuak hobetzen lagundu, sostengu-zerbituzko sare bat gauzatzearekin batera emakumeei arreta osoa bermatzeko bere onera etor daitezen, ahalduntze feminista eta banakako erreparazioa ikuspegi nagusi harturik.
- Bizirik atera diren emakumeak entzun, prebentzio eta segurtasun neurriak diseinatzeko, emakumeei bizirauten eta babesten balio dieten aurre-emate estrategiak balioan jarriz.
- Emakumeen ondoan egon, laguntza-zerbitzuetatik hasita eta bizi izandako Indarkeriari buruzko beraien errelatoa sortzeraino, ulertzen baita Indarkeria hori menderapen –eta control- mekanismoa dela, gizarte-sistema patriarkalean eraikia.
- Ekimen kolektiboek laguntza eman (laguntza-taldeak eta plataformak) hartara bizirik irtendako emakumeek inarkeria horri buruzko errelato kolektiboa landu dezaten eta hautsitako eskubideak zein erreparazioa aldarrika ditzaten.
- Biktimen salaketa-eta erreklamazio-prozesuetan laguntza eman, emakumeek adierazitako testigantza eta beharrak egiaztatzeko.
- Aldiro indarkeria matxistaren biktimen aldeko aitorpen publico eta erreparazioko ekitaldiak egin, indibidualak zein kolektiboak: emakumeen erresistentzia-memoria eta errelatoak jakinarazteko jardunaldiak; azteekiko sentsibilizazio-tailerrak, e.a.
- Elkarlanean jardun mugimendu feministako ordezkariekin, adituekin eta Indarkeria matxistatik bizirik irtendako emakume biktimen kolektibo eta elkarteekin.

Eztabaida


Alkate jaunak esan du azaroaren 25ean emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko eguna ospatzen dela eta aurrean bereziki indarkeria mota hau jasaten duten emakumeen erreparaziorari ematen zaiola garrantzia.

Hartzen diren konpromisoak zeintzuk diren eta EUDELEN adierazpenean zerrendatuta azaltzen direnak zehaztu ditu.

Bozketa

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAA4H78M>

24



Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)
Kontrako botoak: 0
Abstentzioa: 0

Proposamena aho batez onartu da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

12.- Gizarte larrialdiak artatzeko udalaren harrera-etxebizitzak arautzeko Araudia hasierako izaeraz onartzea.

Proposamena

Gizarte larrialdi egoerak artatzeko udalaren Harrera-Etxebizitzak arautzen dituen Araudia berri bat onesteko espedienteari hasiera eman zaiola jakinarazten da.

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikulua zehazten denaren arabera, Udalari dagokio ordenantzak onartzea.

Aipatutako Legearen 49 artikulua zehazten denaren arabera, araudi eta ordenantzak honako prozedura jarraitu beharko dute:

- a) Osoko bilkuraren hasierako onarpena
- b) Jendaurreko informazioa eta interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko hogeita hamar eguneko gutxieneko epea ematea.
- c) Epe horretan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunen ebazpena eta osoko bilkuraren behin betiko onarpena.

Horrez gain, lege-proiektu edo araudia egin aurretik, 2018ko irailaren 27an, Udaletxeko web orrian argitaratu da izapidea betetzeko espedientearen hasiera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legearen 133. artikulua ezartzen duen bezala.

Horretarako eman den epean ez da ez iradokizunik, ez oharrik, ez alegaziorik aurkeztu.

2018ko azaroaren 21eko Osoko Bilkurako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA


1.- Gizarte larrialdi egoerak artatzeko udalaren Harrera-Etxebizitzak arautzen dituen Araudiari hasierako onarpena ematea (dagokion testua erantsita dago).

2.- Ordenantza jendaurrera zabaltzea iragarki taulan eta Gipuzkoako aldizkari Ofizialeko iragarki bidez 30 eguneko apean, interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko, eta Udalak ebartziko ditu iradokizun hauek.

3.- Erreklamaziorik ez balego, akordio berririk gabe Ordenantzak behin betiko onartuko dira.

Eztabaida

Alkate jaunak araudia onartzearen xedea zein den azaldu du, hau da, gizarte larrialdi egoeretan eta genero indarkeriaren biktime diren emakumeak artatzeko etxebizitzaren erabilera arautzea.



Ordiziako Udala

2018IOSB0013

Dubreuil jaunak azaldu du beste urrats bat ematen dela udal eskumeneko gizarte zerbitzuen saileko zerbitzuak ematean.

Etxebizitzak irisgarriak izateko egokitu egingo dira eta proiektuak aurkeztuko dira diru-launtzak lortzeko.

Bi etxebizitza mota daude:

- Gizarte larrialdietarako edo premiazko beharrei erantzuteko etxebizitzak eta
- Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen beharrei erantzuteko etxebizitzak.

Esan du ez direla obra oso esanguratsuak eta datorren urteko erdialderako espero dela zerbitzu hau emateko bi etxebizitza izatea.

Bozketa

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Proposamena aho batez onartu da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

13.- Euskararen Erabilera Plan Estrategiko berria onartzeko konpromisoa

Proposamena

Ordiziako Udalak udal barruan Euskararen Erabilera sustatzeko Plana onartu zuen 2013ko azaroaren 28ko osoko bilkuran V. Plangintzaldirako (2013/17).

2018an, VI. Plangintzaldiari (2018/22) dagokion Plana diseinatu eta onartzea zegokion Ordiziako Udalari. Hala ere, Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzuan, 2018an zehar, ezin izan da Plana diseinatu, saileko lan-pilaketari erantzuteko behar adina giza-baliabiderik izan ez delako denbora tarte luze batean eta ezin izan delako garaiz aurreikusi egoera hori.


Horrek guztiak VI. Plangintzaldiko Plana diseinatzea eta onartzea galarazi du.

Akordio proposamen honen bidez Ordiziako Udalak 2019an ahalik eta azkarren VI. Plangintzaldiari dagokion Udal barruko Erabilera Plana diseinatu eta onartzeko konpromisoa hartzen du, eta aipatutako Plana onartu bitartean V. Plangintzaldiari dagokiona (2013/2017) 2018an ere indarrean dagoela adierazten du.

2018ko azaroaren 14ko osoko bilkurarako gaien Batzordearen oniritziarekin, honako proposamena aurkezten da:

AKORDIO PROPOSAMENA

1.- VI Plangintzaldiari dagokion Ordiziako Udaleko Euskararen Erabilera Plana 2019an zehar onartzeko konpromisoa hartzea



2.- Plan berria onartzen den bitartean V. Plangintzaldiari dagokion Plana indarrean dagoela berrestea.

Eztabaida

Iturrioz jaunak azaldu du Euskararen Erabilera Plan Estrategikoa egiteko edo prestatzeko konpromisoa hartu behar dela 2018 urtean onartzea egokitzen zelako, izan ere, euskara zerbitzuko langilegoan gorabehera batzuk izan dira eta ezin izan da egin, eta beraz, 2019 urtean onartuko da.

Plan berria onartu bitartean aurrekoa luzatuko da.

Bozketa

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Proposamena aho batez onartu da.



4.- San Jose Egoitza Erakunde Autonomoak egindako etxebizitzaren erabilerean lagapena onartzea

Proposamena

2018ko martxoaren 22an Udaleko osoko bilkurak Ordiziako Udalaren, San Jose Egoitza Erakunde Autonomoaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko Hitzarmena sinatzeko akordioa onartu zuen, Foru Aldundiari nagusien egoitza zerbitzua eskualdatzeko.

Hitzarmena sinatzeaz gain, Udalak eraikinaren eta zerbitzua emateko beharrezkoak ziren lursailen doako lagapena egin dio Foru Aldundiari. Une honetan zintzilik dago lagapenaren eskritura publikoa sinatzea eta erregistroan inskribatzea.

Gainera, hitzarmena sinatzeak Erakunde Autonomoko lan-kontratu finkodun langile guztiak Foru Aldundiak (egiazki KABIA Eara, nagusien egoitzak kudeatzeko Foru Aldundiak sortutako erakundea) subrogatzea ekarri du eta horrekin batera erakundearen indarrean dauden kontratu guztiak subrogatzea.


Gestio hauen guztien bitartez Erakunde Autonomia desegiteko eta amaiera emateko espedientea ireki eta onartuko da; izan ere, kudeatu behar ez den xede edo zerbitzurik gabe geratuta, desagertu behar baitu.

Une honetan, erakunde autonomoak dituen ondare eta ondasun guztiak zuzenean pasako dira Udalaren ondarrera.

San Jose Egoitzak, Foru Aldundiari lagatako ondasunez gain, denboran zehar titulu desberdinen bidez eskuratu dituen ondasunak ditu bere ondarean, zerbitzuari atxiki gabekoak, besteak beste, 2 etxebizitza:

- 1) San Joan auzoa, 7 Etxe Alai etxean dagoen etxebizitza
- 2) Urdaneta 15 zenbakian, 2. esk. dagoen etxebizitza.

Eta horrez gain, Joaquin Ibarbia 5. zkia. 3. eskubian dagoen hirugarren etxebizitza bat ere badu, Jabetza Erregistroan nagusien egoitzaren jabetzakoa dela azaltzen ez den arren, jabetza erregularizatzeko familiarekin gestio-lanak egiten ari dira. Gainera, Udalak bakezko erabilera ematen dio eta jabe izanda zerga eta zamen kargu egin da.



Ordiziako Udala

2018IOSB0013

Gizarte Zerbitzuen Sailak erantzunik izan ez duten gizarteko larrialdietako kasuen arretarako bisitokien beharra eskatu izan du eta antzeko baliabide bat sortzeko beharra azpimarratu izan du.

Horretarako, gizarte larrialdiei aurre egiteko bisitokien araudi arautzailearen proposamena egin du Udalak, aldez aurreko kontsulten fasea amaitu ostean udalaren osoko bilkurak hasierako onarpena eman zain dagoelarik.

Xede horretarako erabiliko diren etxebizitzaren beharra du horregatik.

2018ko urriaren 21eko osoko bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, ondorengo proposatzen da,

AKORDIO PROIEKTUA

LEHENA.- San Jose Erakunde Autonomoaren lagapena onartzea, ondorengo 3 etxebizitzaren aldi baterako erabilera lagatzea Ordiziako Udalari:

.- San Joan auzoa 7 C Etxe-Alai helbideko etxebizitza, Tolosako jabetza erregistroan erregistratua dagoena 1621 Liburukian, 112 Liburuan, 110 orrialdean, 781 finka.

.- Urdaneta 15 zk., 2. esk. helbideko etxebizitza, Tolosako jabetza erregistroan erregistratua dagoena 1276 Liburukian, 79 Liburuan, 13 orrialdean, 4.277 finka.

.- Joaquin Ibarbia kalea 5 zk. 3. esk. helbideko etxebizitza, jabetza arautzeko izapideak egiten ari dira.

BIGARRENA.- Erabileraren lagapena aldi baterako izango da San Jose Egoitza Erakunde Autonomoa desegiten den arte eta etxebizitzaren jabetza Ordiziako Udalera pasatzen den arte edota, San Jose Egoitza Erakunde Autonomoak erabileraren lagapena iraungi dela adierazten uen arte.

HIRUGARRENA.- Etxebizitzaren xedea, gizarte larrialdiei aurre egiteko bisitokiarena izango da.

Eztabaida

Alkate jaunak azaldu du lagapen hau aurreko puntuari lotzen zaiola, hau da, gizarte larrialdietarako pisu edo etxebizitzak arautzeko araudiaren onarpen puntuari.

Akordioak ekartzen du Zaharren Egoitzakoak diren etxebizitzaren aldi baterako lagapena onartzea, zerbitzura atxiki gabe egonda ez zaizkio Foru Aldundiari lagapenean utzi eta gizarte larrialdietarako etxebizitzaren zerbitzua emateko erabiliko dira.

Bozketa


Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Proposamena aho batez onartu da.





Ordiziako Udala

2018IOSB0013

15.- Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko lankidetzarako Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren arteko hitzarmen markoa onartzea.

Proposamena

Euskal polizia-eredua Ertzaintza eta udalerrietako Udaltzaingoak osatzen du.

Talde bakoitzari esleitu zaizkion funtzioei dagokienez, ereduaren koherentzia sustatzeko, beharrezkoa da elkarrekiko harremana eta lankidetzeta.

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 42. artikulua eta ondorengo arabera, betebeharrak dituzte bi polizia-kidego horiek: elkarri laguntza eta informazioa ematea.

Lankidetzeta hori errazteko tokiko polizia-koordinaziorako batzordeen figura sortu zuen lege horrek, eta polizia-lankidetzarako hitzarmena sinatzea aurreikusitua da.

Hitzarmenaren xedea da: polizia-kidegoen artean zerbitzuak mugatzea eta esleitzea lege ezarritako eginkizunen arabera; presentzia polizialaren estandar orokorrak definitzea; batera jarduteko edo baterako kudeaketarako zerbitzuak eskaintzeko protokoloak edo planak egitea; polizia judizialeko zereginetan ere laguntzea eta emaitzak ebaluatzeko adierazleak ezartzea.

Horregatik guztiagatik, bi aldeek ahal denik eta lankidetzeta eta elkarlanik handiena lortu nahi dute bi administrazioen mendeko polizia-kidegoei dagozkien funtzioak egiterakoan, eta, horretarako, lankidetzeta-hitzarmen hau sinatu dute.

2018ko azaroaren 21ean egin zen Osoko Bilkurarako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin, hau onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROPOSAMENA

Lehenena.- Ordiziako Udalen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko Esparru-hitzarmenaren izenpetzea onartzea. Eransten den testuaren arabera, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko lankidetzeta eta elkarlaneko moduak eta prozedurak arautzea, lurraldean erabil daitezkeen polizia-baliabideak optimizatzeko eta herritarren segurtasun publikoaren beharrei zerbitzu hobea emateko.

Bigarrena.- Onartu den akordioa Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila igorri akordioa.

Hirugarrena.- Ordiziako Alkate-Lehendakariari hitzarmena eta horretarako beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko baimena ematea.

Eztabaida

Alkate jaunak jakinarazi du hitzarmen marko bat dela, hau da, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailarekin egin den akordio oso orokor bat, eta horrek ondoren hitzarmen zehatzago bat sinatzea erraztuko duela udal bakoitzaren beharrek eta dagokion Ertzaintzako Komisaldegiekin.

Ezenarro jaunak esan du hain zuzen ere akordioa oso orokorra dela eta gauza asko geratzen direla zehazteko Ertzaintzarekin sinatuko den beste hitzarmen horretan.

Bere taldea abstenitu egingo dela esan du.

Bozketa


Aldeko botoak: 6 (EAJ/PNV 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 5 (EH-BILDU)

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAA4H78M>

29



Proposamena gehiengoz onartu da.



16.- 2018ko garapen proiektuei diru-laguntzak,

Proposamena

Kooperaziorako proiektuak garatzeko gobernuz kanpoko erakundeei diru-laguntzak emateko arautzen duen arautegiarekin bat egin da, eta 2017 ekitaldiari dagokion deialdia egin ondoren, 9 proiektu aurkeztu dira.

Honetarako aurrekontuaren partida **78.000 eurokoa** da.

Proiektuak aztertu ondoren, eta 2018/11/14eko Gizarte Ongizateko delegazioa eta 2018/11/21ko Osoko Bilkurarako gaien batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA:

Ondoren aipatzen diren diru-laguntzak onartzea, honako erakunde eta proiektuei:

-1- ASOC "MUGEN GAINETIK" ORGANIZACIÓN NO GUBERNAMENTAL PARA LA AYUDA Y COOPERACION CON LOS PAISES DEL TERCER MUNDO DE SAN SEBASTIAN, GIPUZKOA. "Mujeres zapatistas de Chiapas fortalecen sus capacidades técnicas de gestión de recursos hídricos para mejorar la calidad de vida en sus comunidades. Construcción del Sistema de agua de La Garrucha"
Diru-laguntza: 11.978,44 euro

-2- ASOCIACION ELKARKREDIT DE APOYO ECONOMICO. Fomentar la participación de los/las jóvenes en el desarrollo socioeconómico agrícola en el municipio de Suchitoto, El Salvador
Diru-laguntza: 8.223,47 euro


-3- ASAMBLEA DE COOPERACION POR LA PAZ. Emakumeen ugalketa eta sexu eskubidetan gaitasunak hezitu. El Salvador
Diru-laguntza: 11.575,33 euro

-4- NAZIOARTEKO ELKARTASUNA – SOLIDARIDAD INTERNACIONAL. Apoyo educativo y psicosocial a la población infantil refugiada en el sur de Líbano (Fase 3)
Diru-laguntza: 11.891,77 euro

- 5- ASOC "TAUPADAK" ORGANIZACIÓN NO GUBERNAMENTAL PARA EL DESARROLLO. Agua potable y saneamiento básico para eliminar la mortandad materno-infantil y preservar la salud de los indígenas chimanes (2ª fase)
Diru-laguntza: 10.523,25 euro

-6- FUNDACION ETIOPIAUTOPIA FUNDAZIOA TIKAL. Mejora de la educación de las alumnas de colegios de primaria en el manejo de la menstruación. Tigray. Etiopia.
Diru-laguntza: 7.044,99 euro

-7- GIPUZKOAKO OSKAR ROMERO SOLIDARITZA BATZORDEA. Promover la organización social y política de las mujeres para la defensa de sus derechos en el municipio de Atiquizaya,
Diru-laguntza: 11.945,90 euro



Ondoren aipatzen diren erakundeek aurkeztutako eskaerak ukatzea:

-1- ASOC SERVICIO DE SOLIDARIDAD "SAN VIATOR" DE EUSKALHERRIA (SERSO).
"Remodelación aulas EFA - IMSV Gonaïves (Haïti)"
Diru-laguntza ukatzearen arrazoa: Proiektu honen puntuazioa ez da nahikoa izan lehiaketan diru-laguntza lortzeko.

-2- DERANDEIN FUNDAZIOA. Reducción de la situación de vulnerabilidad de la primera infancia en la comunidad de Small Erus, Kenia. Fase III
Diru-laguntza ukatzearen arrazoa: Proiektu honen puntuazioa ez da nahikoa izan lehiaketan diru-laguntza lortzeko.

Eztabaida

Dubreuil jaunak azaldu du aurten 9 proiektu aurkeztu direla eta guztira 7ri eman zaiela diru-laguntza ehuneko ehunean.

Proiektu hauek beste urteetako en ildotik doaz. Aipatu egin ditu.

Esan du bi proiektu kanpoan geratu direla ez zegoelako guztientzako adinako finantziatorik.

Esan du pentsatu egin beharko dela zer egin partidaren esleitu gabe geratu diren beste 4.000 euroekin.

Beste alde batetik esan du elkarte batzuekin lan egin behar dela eskaerak aurkezteko moduaren inguruan.

Bozketa

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Proposamena gehiengoz onartu da.



17.- "15 -TXINDOKI" HIEren 15.6. EUri dagokion Arau subsidiarioen aldaketa hasierako izaeraz onartzea.


Proposamena

2018ko urtarrilaren 25eko osoko bilkurarako akordioaren berri ematen da, bertan, "Txindoki" 15 HIEren 15.6 EUri dagokion Arau Subsidiarioetako Aldaketaren espedientea hasierako fasera atzera ekartzea erabaki zen.

Atzera egin da ez zelako Ingurumen Ebaluazioaren espedientea bideratu, xedapen aldaketa onartzeko beharrezkotzat jo ez zelako.

Nolanahi ere, kontuan izanda Konstituzio Epaitegiaren 109/2017 epaia, irailaren 21ekoa, ingurumen ebaluazioaren prozedurari lotutako Ingurumen Ebaluaziorako Legea plangintzaren baliabide edo instrumentu guztiei lotzen zaiela dioena, segurtasun juridikoan oinarrituz dokumentu hau izapidetzeko erabakia hartu zen.

Ingurumen organoari Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa bidali ondoren, organo honek Ingurumen azterketa estrategikoaren Irismeneko dokumentua egin du.



Ordiziako Udala

2018IOSB0013

2018ko urriaren 19an "Txindoki" 15 HIEren 15.6 EUri dagokion Arau Subsidiarioetako aldaketaren dokumentu berria aurkeztu da.

Horrekin batera Ingurumenaren Azterketa Estrategikoa aurkeztu da, onartzeko.

Lurzoru eta Hirigintzako 2/2006 Legeak ezarritakoaren arabera, Udalak partaidetzarako izapide gisa, aldaketaren edukiari buruzko ezaugarri garrantzitsuenak argitaratuko ditu webgunean.

Azkenik, 2018/11/21ean Udal Plangintzako Aholku Batzordea egin da.

2018ko azaroaren 21eko Osoko Bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako hau proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- TXINDOKI 15 HIEren 15.6 EUri dagokion Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako elementuak hasierako izaeraz onartzea, 2018ko azaroaren 12ko txosten teknikoaren arabera.

2.- Espedientea jendaurrera zabaltzea, eta baita Ingurumen Azterketa Estrategikoa ere GAOn, Udaleko iragarki-oholean eta lurralde historikoan zabalpen handiena duen egunkari batean iragarkia jarritz, azkeneko argitalpena kontuan izanda 45 eguneko epean. Epe horretan edozein interesdunek eskura izango du espedientea alegazioak egin ahal izateko.

3.- Foru Aldundiko Errepide Sailera eta URA UR AGENTZIAra bidaltzea dagozkien txostenak egin ditzaten.

4.- Mugakide diren udalei bidaltzea dokumentua, horren berri izan dezaten.

Eztabaida

Alkate jaunak azaldu du ez dela lehenengo aldiz ekartzen osoko bilkurara eremuko Arau Subsidiarioetako aldaketaren onarpena; baina orain onartzeko proposatzen den dokumentuak Ingurumen Azterketaren zehaztapenak jasotzen ditu.

Bozketa

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Proposamena aho batez onartu da.




18.- KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA ONARTZEA. KREDITU TRANSFERENTZIA MODALITATEA. 2018-KALD-000009-00 ZENBAKIDUNA.

Proposamena

Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean gastu partiden arteko transferentzia bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den espedientea aztertu dugu.

Obretako arduradunak egindako proposamena aztertu da. Hortik ondorioztatu da adierazitako aldaketa aurrekontuaren exekuzioa arintzeko lagungarria izango dela eta horren izapidetzea bat datorrela



Ordiziako Udala

2018IOSB0013

aplikagarria zaion legeriarekin. Hori hala izanik, batzorde honek bidezkoztat jo du organo eskudunak onartzea kreditu transferentzia, 40.000,00 eurokoa, bai gehitutako kredituei (altak) dagokienean, bai transferitutako kredituei (bajak) dagokienean, proposamenean ageri diren aurrekontuko gastu partiden xehetasun berarekin.

2018ko azaroaren 21ko Plenorako Gaien Batzordearen oniritziarekin honako proposamen hau aurkezden da:

AKORDIO PROPOSAMENA

Kreditu aldaketarako espedientea onartzea. Kreditu transferentzia modalitatea, 2018-KALD-000009-00 zenbakiduna, ondoren erantsitako taulan jasotzen den bezala.

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 643.01.153.40.0224 2018	URDANETAKO BERRIKUNTZA	15.000,00	15.000,00	0,00
1 643.02.153.40.0224 2018	ESPALOIEN KONP. URDANETA KALEA	25.000,00	25.000,00	0,00
GUZTIRA		40.000,00	40.000,00	0,00

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 601.01.153.40.0800 2017	ESPALOIEN KONPONKETA	122.714,73	40.000,00	162.714,73
GUZTIRA		122.714,73	40.000,00	162.714,73

Ordizian, 2018ko azaroaren 16an

Eztabaida

Alkate jaunak azaldu du partiden kredituak aldatzea edo mugitzea dela xedea eta horrek Urdaneta kaleko azken zatiko birgaitze lanen exekuzio hobia izateko aldaketen beharrei erantzuten die. Hain zuzen ere, lana sakonago egitea, eta ez hain azalekoa.

Guztira 40.000 €.

Ezenarro jaunak esan du bat egiten dutela neurriaren funtsarekin baina pixka bat arraroa iruditzen zaio Urdaneta kalerako dauden bi partidak handitu edo zabaldu ordezt partida berri bat sortzea, "espaloiak berritzea" deiturikoa, zein kale edo bidetan erabiliko den zehazten ez duena. Aurrekontua lan-tresna bat da, ahalik eta gehien errespetatu beharrekoa.

Alkate jaunak esan du xedea Urdaneta kalea berritzea dela.


Kontu-hartzaile jaunak gaia argitu du.

Bozketa

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0



Proposamena aho batez onartu da.



19.- Kreditu aldaketaren espedientea, kreditu-gaikuntza modalitatea. Zbka:2018-KALD 000010-00

Proposamena

Udal honen 2018ko aurrekontuaren barnean kreditu gaikuntzen bidez izapidetzen ari den kreditu aldaketaren espedientea aztertu dugu.

Kreditu gaikuntza finantzatuko duten sarrerak bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza.

Azaldutako guztiarengatik, eta kreditu aldaketak finantzaketa nahikoa eta egokia duela kontuan hartuz, Batzorde honek adostu du aipatutako espedientea ontzat ematea eta organo eskudunari proposatzea kreditu gaikuntza, 30.705,00 eurokoa, behin betiko onar dezala.

2018ko azaroak 21eko Plenorako Gaien Batzarren aldeko irizpidearekin honako proposamena aurkeztu da.

AKORDIO PROPOSAMENA

Kreditu-aldaketaren espedientea, kreditu-gaikuntza modalitatea, Zbka:2018-KALD 000010-00, onartzea ondoren idatzitako taularen arabera:

Kredituak gaitzeko proposamena

Gastuen partida	Azalpena	Zenbatekoa
1 500.00.929.00.0104 2018	Kreditu Globala. Ongizatea	30.705,00
GAITU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA		30.705,00

Kreditu gaikuntzaren finantzaketa

Kod.	Sarreraren partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 420.08.000.00.0000 2018	DIPUTACION - FONDO EXTR.SERV.SOCIALES	30.705,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			30.705,00

Kodeen azalpena

a) Pertsona natural edo juridikoen ekarpenak edo ekarpen konpromisoak


Ordizian, 2018ko azaroaren 16an

Eztabaida

Dubreuil jaunak esan du udalerrietatik Gizarte Zerbitzuetako Sailaren zerbitzu guztiak sustatzea erabaki zenean, Foru Aldundiak diru bat ipini zuela udal eskumenekoak ziren zerbitzuak eskaini zitezten nahiz eta ez eduki zerbitzu horiek, baina eskatzen badira.

Funts horrekin behar horiei egingo zaie aurre.

Kreditu orokorra dela argitu du oraindik ez dakigulako zertan gastatuko den diru hori.



Bozketa

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)
Kontrako botoak: 0
Abstentzioa: 0

Proposamena aho batez onartu da.

Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.



20.- Aparkaldi mugatuko eremuak arautzen diuen udal ordenantza aldatzea.

Proposamena

Udalaren osoko bilkurak onartutako aparkaldi mugatuetako eremuen Ordenantza Arautzailearen aldaketari dagokion espedientearen berri ematen da.

Ordenantza hau aldatzeko proposamenaren xedea da orokorrean herritarren aparkaldi mugatuko behar berriei irtenbidea ematea, aparkaldi eremu hauetako egoiliarren beharrak ere kontuan izanik eta horretarako egoiliar hauek aparkatzeko eremu bereziak sortuz.

Ordenantzaren aldaketak, horrekin batera jasotzen ditu aparkalekuak erabiltzeko baldintzak eta egoiliarren eremuetako onuradunek bete beharreko baldintzak.

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikulua zehazten duenaren arabera, Udalarik dagokio Ordenantzak eta Araudiak onartzea.

Legearen 49 artikulua ezarritakoari jarraituz, tokiko ordenantzak onartzeko ondorengo prozedura jarraituko da:

- Osoko Bilkurak hasieran aldaketa onartu.
- Jendaurrera zabaldu eta interesatuentzako entzunaldia hogeita hamar eguneko gutxieneko epean, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko onartutako aldaketari.
- Aurkeztu daitezkeen erreklamazioak eta iradokizunak ebaztea.
- Osoko bilkuren behin betiko onarpena.


Horiek ikusita eta 2018ko azaroaren 21eko Osoko Bilkurarako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin honako hau onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Erantsitako testuaren arabera aparkaldi mugatu eremuak arautzen dituen Ordenantzaren aldaketa hasierako izaeraz onartzea.

2.- Arautegi hori jendaurrera jartzea 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan, eta interesdunek aurkeztutako erreklamazioei eta iradokizunei tartea ematea, horiek guztiak Udalbatzak ebatziko dituelarik.

3.-Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego, Ordenantza behin betiko onartutzat emango da, akordio berririk egiteko beharrik gabe.



Eztabaida

Alkate jaunak azaldu du hainbat eskaera jaso dituztela herritarrengandik, oro har, eta dendariengandik aparkalekuekin dagoen arazo dela-eta.

Proiektu pilotu bat da, proba egiteko ezarri nahi dena. Alabaina, arautu beharra dago ordenantzak berak jasotzen dituen arau-haustek zigortzeko.

Horrek praktikan gertatzen diren kasuen inguruko datuak emango dizkigu; horrela, hurrengo agintaldian hartu beharreko erabakia hartzeko beharrezkoak diren informazioa eta datuak edukiko ditugu.

Beasainen bezala, bi eremu bereizten dira: gorria eta urdina. Lehena egoiliarrentzat (20:30etik 9:30era) eta bigarrena, berriz, edonorentzat, denbora-tarte mugatuarekin. Eremu urdina, egungo aparkalekuekin, zabaldu egingo da.

Eguren jaunak osoko bilkurako kideei gogora ekarri die aurreko legealdiaren bukaeran, 2015ean, bere taldeak proposatu zuela aparkaldi mugatuko eremuak kontrolatzeko pertsona bat kontratatzea, baita enplegu-plan baten barruan ere.

Egungo gobernuak, sartu berritan, bertan behera utzi zuen proposamena, neurriak lege aldetik zalantza asko sortu bazituen ere.

Beraiek martxan jarri zuten Udaltzaingoaren Buruzagitzak esan zuelako udaltzainen gaur egungo plantillarekin aparkaleku horiek kontrolatzea ezinezkoa zutela.

Orain, 4 urtera, alkateak berriro proposatu du lehengo neurria. Alkateak dio neurria mugikortasun-mahaian proposatu dela.

Udallerriak dituen aparkaleku-premiari buruzko azterlan edo diagnosi proposamen bat dago. Txostena oso garestia zela esan zen, eta ez zen egin. Egin izan balitz, gaur egun azterlan integral bat edukiko genukeen plangintza egiteko.

Halaber, aurrekontuan 30.000 €-ko kontu-sail bat onartu zen azterlan hori egiteko, eta gaur egun oraindik ez da ezer egin.

Aurtengo uztailen, EH-BILDUK aparkaleku-premiak hobetzeko planteamendu bat jaso zuen bere aldizkarian.

Ordenantzaren 6. artikulua bitarteko pertsonalak eta materialak aipatzen ditu. Gobernu honek atzera bota du, hain zuzen ere, aurreko gobernuak bitarteko pertsonal horiek izateko onartutako neuri bat.


Ez daki neurri pertsonal horien inguruan ezer zehatzik planteatu den.

Abstentziora joko dute proposamena ez tratatzeko.

Pasa den astean dendariekin elkartu zirela dio. Dendarien esanetan aparkatzeko denbora-tartea ez da nahikoa. Hori kontuan hartu ote den galdetu du.

Atsekabetu egiten ditu hori guztia titular bat lortzeagatik egitea. Titularra osoko bilkuran erabakia hartu aurretik izan da.

Alkate jaunak esan du tokiko gobernu-batzordean eta osoko bilkurarako gaietako batzordean informatu zuela, eta neurriak irtenbide integrala ematen ez badu ere, egoki iruditzen zaio proposamena onartzea ibiltzen hasteko.



Ordiziako Udala

2018IOSB0013

Esan du aurrekontua begiratuko duela, ez baitu gogoan Eguren jaunak aipatu dituen 30.000 €-ko kopuru hori.

Eguren jaunak esan du berek ere begiratuko duela eta, partida hori ez egonda ere, kreditua alda daitekeela.

Alkatearen jaunaren iritziz, proposamena onartuta, urrats positiboa emango da.


Bozketa

Aldeko botoak: 6 (EAJ/PNV 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 5 (Ordiziako EH-Bildu 5)

Proposamena gehiengoz onartu da.



21.- Urdaneta 4-6 eraikinaren lursaila zuzkidura-karga gisa lagatzea onartzea.

Proposamena

2017ko abenduaren 19ko hirigintza baimenaren eta 2018ko uztailaren 24ko obra baimenaren berri ematen da, GOI -ETXE SAK Urdaneta kalea 4 eta 6an etxebizitzan, merkataritza-lokalen eta garajeen eraikin bat eraikitzeko.

Hirigintza baimenaren aurka berraztertzeko errekurtsua ipinita, 2018ko abuztuaren 20ko 2018/0760 zenbakidun dekretuak GOI-ETXE SAK ipinitako errekurtsua onartzen du partzialki eta ezartzen du zuzkidura-karga 12.669 euroren ordainketan eta mugakide diren 57,41 m² lurzoru publikorako lagapenean oinarrituko dela.

2018ko urriaren 18ko Alkatetza Dekretu bidez GOI-ETXE SAKi katastroko 6667211 zenbakidun (Urdaneta kalea 12. zenbakia) 57,41 m²-ko lursailaren banantze baimena eman zitzaion jabari publikora lagatzeko Urdaneta 4-6 zenbakiko obren baimenaren zuzkidura-karga gisa.

2018ko azaroaren 9an GOI-ETXE SAKen eskaera erregistratu zen, ipinitako zuzkidura-kargari aurre egiteko banantzeko lursailaren lagapena formalki onartzeko eskaera egiten zaio Udalari, eta eskaera horri erantsita azaltzen da banantze eta lagapenaren eskritura publikoaren zirriborroa.


Hori ikusita, osoko bilkurari lagapena onartzea dagokio.

2018ko azaroaren 21eko Osoko Bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako hau proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

LEHENA.- Katastroko 6667211 zenbakidun (Urdaneta kalea 12. zenbakia) 57,41 m²-ko lursailaren banantzea onartzea jabari publikora lagatzeko Urdaneta 4-6 zenbakiko obren baimenaren zuzkidura-karga gisa.

BIGARRENA.- Jose Miguel Santamaria Eceiza Alkateari lagapena formalizatzeko beharrezkoak diren agiriak sinatzeko ahalmena ematea.



Eztabaida

Alkate jaunak jakinarazi du eraikuntza baimenean bertan eskatzen den lagapena dela zuzkidura-kargari aurre egiteko. Urdaneta kaleko 4 eta 6 zenbakietako atzealdeko lursail txiki bat da.

Bozketa

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Proposamena aho batez onartu da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

22.- Galde-erreguak

Iturrioz jaunak hainbat ekintza proposatu ditu EUSKARALDIaren barruan. Horretarako zinegotzi guztiei eskatu die argazki bat egitea.

Maiza andreak esan du aurten faltan izan duela onartutako aurrekontua banatzea zinegotzi guztiei, paperean koadernaturik.

Kontu-hartzaile jaunak erantzun dio ez dela hala egin lan-kargarengatik eta ez delako lehentasunezko ikusi. Atzeratu egin da, nahiz eta aurrekontu osoa jasotzen duen Excela zinegotzi guztiei banatu zaien.

Maiza andreak Dubreuil jaunari galdetu dio zenbatekoa izan den zaharren egoitzako langileen grebak izan duen eragina eta inpaktua.

Dubreuil jaunak esan du gaizki pasatzen ari direla, langileek askotan ezin dietelako agureei nahi bezalako arreta egin, eta gainera, egoitzako langileek enpresa esleipenduneko langileek egin beharko zuten baina egiten ez duten lana ere egin behar izaten dute.

Ezenarro jaunak alkateari eskatu dio gobernu-taldeko prentsa-komunikazioek errealitateari erantzuteko, prentsak egia ez diren informazioa agertu baitira.


Esan du oposizioak, interes orokorraren mesedetan, 2017ko irailean eskatu zuela Lukusingo garajeak hirugarren bati besterentzeko eragiketa (Bruesak burutu beharrekoa) analizatzea, garaje horiek udalak berreskura zitzan.

Alkateari eskatu dio dagozkion dominak jartzeko, ez besteak.

Horrez gain, esan du osoko bilkura batean puntua mahai gainean geratu zela, udalaren espazio premiak analizatzeko, eta hala balegokio, premia hori asetzeko garaje-kopuru bat gordetzeko. Bere taldeak eskatu zuen.

Alkateak erantzun dio halaxe izan zela. Garajeak berreskuratzeko aukera planteatu zen, eta horri begirako prozedura martxan jartzea erabaki zen.

Lizitatu beharreko garaje-kopuruari dagokionez, beti jakin izan da horietako batzuk udalaren premiak asetzeko gordeko zirela, eta halaber, hotela eraikiko den lurzatiari hainbat garaje-plaza izateko aukera emateko.



Ordiziako Udala

2018IOSB0013

Esan du gaia mahai gainean geratu zela osoko bilkurak onartu behar zuen unean ez genituelako esku artean gehiegi atzeratu ziren tasazioak, eta tasazio horiek eduki bezain laster osoko bilkurara ekarriko zela berriro onartuak izateko.

Hori da prentsan adiera duena. Esan du, halaber, EH-BILDUK esan duela ez duela halako prisarik lizitazioa deitzeak.

Esan zuen, orobat, giltzak pasa den urriaren 23an jaso zituztela. Egun horretan sinatu zen notarioren aurrean kontratuaren suntsiarazpena; sinatze hori ere atzeratu egin zen ahaldunak Espainiako leku desberdinetakoak zirelako.

Esan du, halaber, garajeen esleipenengatik sarrerak sarrera gisa ageri direla aurrekontuan abuztuaren 8an aurrekontua behin betiko onartu zenetik, eta ahalxe ageri da kontu-hartzailearen txostenean ere.

Hori da esan duena.


Ezenarro jaunak erantzun dio osoko bilkurarako gaiak aztertzen dituen batzordearen deia eta aztergaiak alkateak prestatzen eta sinatzen dituela, eta 2018ko irailaren 20an osoko bilkurarako gaiak aztertzen dituen batzordean erabaki zela 32 garaje lizitatzeko proposamena mahai gainean uztea, eta udalak izan ditzakeen premiak asetzeko garaje-kopuru bat erreserbatzeko proposamena bere taldeak egin zuela, eta halaxe ageri dela aktan.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

ALKATEAK

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIAK



Ordiziako Udala

2018IOSB0013

En Ordizia siendo el día **29 de noviembre de 2018** se reúne en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial el AYUNTAMIENTO PLENO EN Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:

ASISTENTES:

PRESIDENTE:

Dn. José Miguel Santamaría Ezeiza

CONCEJALES PRESENTES:

Joseba Aranburu Ganzarain	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M. Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Euskal Sozialistak-Socialistas vascos

CONCEJALES AUSENTES:

SECRETARIA:

Dña. Ana Urkizu Kerejeta

INTERVENTOR:

Dn. Mikel Zubizarreta Elicegui


OTRAS INCORPORACIONES Y AUSENCIAS

- Sr. Aranburu se incorpora en el punto nº 2.
- Sra. Sukia y Sra. Soto se ausentan en el punto nº10.

ORDEN DEL DÍA

ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:

- 1.- Aprobación del Acta del Pleno ordinario celebrado el 10 de octubre de 2018.
- 2.- Aprobación del Acta del Pleno Extraordinario celebrado el 12 de noviembre de 2018.
- 3.- Dación de cuenta de los decretos de alcaldía correspondientes a los meses de septiembre y octubre.
- 4.- Dación de cuenta del reparo del Interventor sobre contratación correspondiente a los meses de octubre y noviembre.
- 5.- Dación de cuenta del informe del Interventor en relación al acuerdo de pleno de 12 de noviembre sobre la adjudicación de garajes en Zuberoa kalea.
- 6.- Dación de cuenta del reparo 10/2018 del Interventor a la aprobación del incremento salarial del 2,75% para el 2018.
- 7.-Dación de cuenta del decreto nº. 1123/2018 de aprobación del convenio de concertación de la Unidad de Ejecución 32.1 del A.I.U. 32-GARBIGUNE
- 8.- Moción presentada por la Asociación SARE y suscrita por Ordiziako EH-Bildu y Ordizia Orain denunciando la política de alejamiento de personas presas.



- 9.- Moción presentada por el sindicato ENBA y suscrita por EAJ/PNV solicitando respeto para la ejecución del proyecto "acondicionamiento para vehículos a motor en los pertenecidos de ENIRIO-ARALAR".
- 10.- Declaración institucional sobre el Día Internacional del Euskera 2018.
- 11.- Declaración institucional sobre el Día Internacional contra la Violencia Hacia las Mujeres.
- 12.- Aprobación inicial del Reglamento Regulator de los pisos de acogida municipal para la atención de situaciones de urgencia social.
- 13.- Compromiso para la aprobación del nuevo plan estratégico de utilización del euskera.
- 14.- Aceptación de la cesión de uso de viviendas realizada por el O.A.Residencia Sn.José.
- 15.- Aprobación del convenio marco entre el ayuntamiento y el Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco para la cooperación entre la Ertzantza y Policía Local.
- 16.- Subvenciones a proyectos de desarrollo 2018.
- 17.- Aprobación Inicial de la modificación puntual de las NN.SS relativa a la U.E.15.6 del A.I.U. "15-TXINDOKI".
- 18.- Aprobación del expediente de modificación de crédito. Modalidad de transferencia de crédito nº.2018KALD 000009.
- 19.- Expediente de modificación de crédito, Modalidad de habilitación de crédito número, KALD 000010-00.
- 20.- Modificación de la ordenanza municipal reguladora de las zonas de estacionamiento limitado.
- 21.- Aceptación de la cesión de terreno de GOI-ETXE en Urdaneta kalea 4-6.

ASUNTOS TRATADOS POR ORDEN DE URGENCIA:

ASUNTOS TRATADOS EN RUEGOS Y PREGUNTAS:

- Euskaraldia
- Solicitud de presupuestos encuadrados.
- Información sobre incidencia de la huelga de trabajadores de la residencia de ancianos.
- Garajes bajo el vial de Zuberoa kalea.


INCIDENCIAS

HORARIO

HORA INICIO: 19:00 horas.

HORA FINAL: 21,00 horas.





Abierta la sesión por parte del Presidente, se da lectura al primer punto del orden del día.

1.- Aprobación del acta de la sesión ordinaria de fecha 10 de octubre de 2018

Propuesta

Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria celebrada el día 10 de octubre de 2018

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:

Sr. Ezenarro señala que en el punto “Ruegos y preguntas”, en relación al punto del Caserío Oiangu además de lo que en el acta se recoge, dijo también que las cosas y efectos que tuvieran valor deberían retirarse a efectos de evitar posibles robos, y que si no se tomaban las medidas necesarias, la responsabilidad sería de quién no hubiera adoptado dichas medidas.

Sr. Alcalde señala que él le respondió que se habían tomado ya medidas al respecto.

Se procede a la corrección del acta.

Votación

Realizada la votación ofrece ésta los siguientes resultados:

Votos a favor: 12 (EAJ 4, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Votos en contra: 0

Abstención: 0

Declara en consecuencia el Sr. Alcalde aprobada el acta por unanimidad.



